

# PROPOSAMENAREN JARRAIPEN FITXA

---

## ○ AURREKONTUAREN URTEA:

2016

---

## ○ PROPOSAMENA:

Portu auzoan espaloi bat sortu Tuneletik Lonja bitarteko zatian oinezkoentzako babes gehiago izateko

---

## ○ EGOERAREN AZALPENA:

Udalak, Elizatxo eta Portuko auzotarrekin eta Elizatxo ikastolako hezkuntza komunitatearekin partaidetza prozesu bat egin zuen.

Bertan hainbat proposamen egin ziren trafiko arazoak konpontzeko. Udalak hiru fasetan burutuko ditu bertan ateratako ekintzak.

Urte bete darama martxan lehen inizatibak; umeez eskolan sartzeko eta irtetzeko orduetan bidea itxita egongo da, umeen segurtasuna bermatzeko. Tarte horretan auzotarrek sartu edo irtetzeko udalean baimena eskatu beharko dute. Iniziatiba honen balorazioa ere uztailean egin zen , eta horrela jarraitzea erabaki zen.

Bigarren fasean, honako interbentzioak egingo dira:

Tuneletik Sangay taberna bitartean aktuazioak egingo dira, portuko tunelean oinezkoen gune bat sortuz. Tuneletik portu bitartean oinezkoentzako bidea marraztuko da eta portu sarreran ere marrazketa berdina egingo da, oinezkoek bertatik segurtasunez ibiltzeko.

Hirugarren fasean, Elizatxo eskolako aurreko aldean interbentzioak egingo dira eta Ikastolatik Elizatxo auzora espaloia sortuko da.

---

## ○ SAIL ARDURADUNA:

HERRI LANAK

---

## ○ GARATU DEN EPEA:

## ○ AURREIKUSITAKO GASTUA:

20436

---